



HAL
open science

Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarien ekarpena

Igone Zabala, Agurtzane Elordui

► **To cite this version:**

Igone Zabala, Agurtzane Elordui. Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarien ekarpena. Mendebaldeko Kultur Elkartea, pp.15-53, 2005. artxibo-00000101

HAL Id: artxibo-00000101

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000101>

Submitted on 11 Apr 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarien ekarpena¹

Igone Zabala eta Agurtzane Elordui

0. Sarrera

Hizkuntzaren zenbait profesionalen iritzietan maiz aurkitzen ditugu ‘artifiziala’ ‘ez-naturala’ ‘ez-euskara’, ‘Marteko euskara’, ‘orotariko euskara’ bezalako balioztatzeak zenbait euskaldunen ahozko nahiz idatzizko ekoizpenez ari direnean. Boladan bide dago euskararen kalitateari buruzko iritziak ematea (Zuazo 2000, Garzia 2004, besteak beste). Erabilera berrietan egiten den euskaraz, eta bereziki euskara tekniko-zientifikoaz, are tonu iraingarriagoa erabili ohi da: narrasa, zabarra, onartezina, mordoilokeria, izugarrikeria bezalakoak denoi egiten zaizkigu ezagunak. Zientzialariek erabiltzen duten euskara maiz aipatu ohi da euskara kaxkar eta antikomunikatiboaren adibide paradigmatico modura. Zientzia Fakultateko euskara ‘Leioako euskalkia’ izendatzeraino heldu denik ere ez da falta, eta bertan sortuta-

¹ Lan hau aurrera eramán ahal izateko, EHUK 1/UPV 00033.310-H-14838/2002 ikerkuntza-egitasmoaren barruan emandako diru-laguntza baliatu dugu.

ko zenbait testu euskararen normalizazioan lagundu baino, kaltegarriak ere omen dira normalizazio horretarako zenbaiten iritziz (Sarasola, 1997b).

Deskalkifikazio horien erabilera bakar-bakarrik uler daiteke —gure ustez ez justifikatu—, epaitutako ekoizpenen ezegokitasuna edota asegarritasun mugatua egileen nagikerian edo arduragabekeria dartzala ulertzen bada. Gure iritziz, baina, lan honen lehen atalean azalduko ditugun baldintza soziolinguistikoaren argitan, erraz ikus daiteke egungo euskal hiztunek komunikatzeko dituzten zailtasunak ez direla hiztunen arduragabekeriaren ondorio, edo ez kasu gehienetan behintzat. Are urrunago eraman gaitu esparru tekniko eta zientifikoetan euskaraz diharduten profesionalen ekarriaren azterketak. Profesional horiek arduragabekeria baino, paregabeako ardurak erakutsi dute euskara gaurkutzeko eta beren beharretara egokitzeko: beren erabilera-esparruko errepertorio linguistikoa garatzeko eta hedatzeko dituzten zailtasunak azaltzea da, hain zuzen ere, lan honen bigarren gaiaren helburua.

Orobat, testu tekniko-zientifikoak epaitzeko erabiltzen diren irizpide linguistikoak eztabaidagarriak iruditzen zaizkigu. Izan ere, askotan ez dirudi testu horiek epaitzeko orduan soziolinguistikan, hizkuntzalaritza orokorrean, diskurtsoaren analisisian eta terminologiaren teoriarik hizkuntzalariek oro har onartzen dituzten hatsarreak eta metodologia kontuan hartu direnik. Areago, hizkera tekniko-zientifikoek dituzten berezitasun linguistikoetara bagoaz, maizegi ahazten dira erregistro funtzional horien berezko ezaugarriak eta gutxitan hartzen da kontuan hizkuntza esparru berrietara hedatzeak hizkuntzaren sistemari berari, edo sistema gauzatzeko moduari behintzat, eragiten diola. Hirugarren atalean, hizkuntzaren erabilerak hizkuntza-sistemari nola eragiten dion azalduko dugu hain zuzen ere. Lauugarren atalean, berriz, hizkuntzalariek beren azterketak egiteko erabiltzen dituzten metodologiak izango ditugu hizpide. Atal horretan

azalduko dugunez, erabilera murrizta eta esparru batzuetara mugatua izan duen euskara bezalako hizkuntza batean, tentu handiz erabili behar dira *corpusetatik* eta hiztunen intuiziotik abiatuta lortzen diren datuak: besteak beste, datu horiek ezin dira zuzenean estrapolatu berriak diren hizkuntzaren erabilera berezitetara.

Hizkuntzaren erabilera berrien zuzentasuna eta egokitasuna epaitu ahal izateko, ezinbestekoa dugu irizpide linguistiko garbiak izatea. Bosgarren atalean bilduko ditugu gutxieneko irizpide haue-tako zenbait, baina horien artean bada bat hizkera tekniko-zientifi-koei dagokienez funtsezkoa iruditzen zaiguna: terminoek, eta oro har hizkuntza-unitate berezituak, hiru alderdi uztartzen dituzte —alderdi linguistikoa, kognitiboa eta soziala—. Hizkuntzalariek beren ekarpena egin dezakete alderdi linguistikoa asegarriagoa egi-ten laguntzeko, baina zientzialarien ekarpena behar da ezinbestean alderdi kognitiboa eta soziala asegarriagoak egiteko. Izan ere, zien-tzialariek bi ezaugarri biltzen dituzte: hiztun modura duten gaita-sun orokorra eta lan egiten duten jakintza-esparruaren baldintza pragmatiko berezien ezagutza. Baina, gainera, terminoen bereizga-rria den nozio-denominazio lotura gauzatu ahal izateko, ezinbeste-koa da termino horiek erabiltzen dituen diskurtso-komunitatearen barruko adostasuna.

1. Euskararen normalizazioa eta hiztunen hizkuntza-gaitasuna

Hogeigarren mendearen erdian euskara erabilera pribatuetara mugatuta zegoen neurri handian. Erabilera publikoetan eta, zeresanik ez, zientzia eta teknikaren erabilera-esparruetan, gatzelania eta fran-tsesa ziren nagusi. Diglosia-egoera honek, orduan euskal gizarteak bizi zuen industrializazio eta modernizazio garaian, kaltetu zituen bai euskararen prestigioa eta bai euskaldun askorentzat zuen baliagarritasuna ere: horrexek eragin zuen, bestelako arrazoi soziopolitiko, eko-

nomiko eta kulturekin batera², hurrengo bi hamarkadetan gertatu zen hizkuntza-ordezkatze masiboa. Hirurogeiko hamarkadatik hona euskararen normalizazioan aurrera eramán diren ekimenek —berezi-ki euskararen kodifikazioak eta euskara hezkuntza-sisteman sartu izana— errotikako aldaketak ekarri dituzte euskararen egoera soziolin- guistikoan, baita hiztunek hizkuntzaren inguruan dituzten iritzietan ere. Horrela, hiztunen galera konpentsatzea lortu da neurri batean³, eta esparru publikoetako erabilerak gora egin du nabarmenki. Orduan ez bezala, euskarari, edozein hizkuntzaren parean, bai espa- rru pribatuetan, bai publikoetan ere erabilia izateko gaitasuna gero eta gehiagok aitortzen diote.

Baina, ez dago arazo eta erronka berriak ez dakartzan aurrerapau- sorik: lan gogorra gertatu eta gertatzen zaigu aurreko mendean hasi zen hizkuntza-ordezkatze prozesua etetea eguneroko jardueretako harreman-sareetan, alegia, harreman-sare hurbiletan. Gainera, familia eta lagunarteko erabilera-esparruetan egungo harreman-sareak lehen- goak baino askoz ere konplexuagoak dira. Hasteko, hiztunen tipolo- gian errotikako aldaketak bizi izan ditugu. Lehengo euskaldunen pro- fila nahikoa homogeneoa zen: bakan batzuek salbu, euskaldun gehie- nek euskara ama-hizkuntza zuten, eta euskara erabiltzen zuten familia eta lagunarteko harremanetan eta nekazari eta arrantzale lanekin lotutako jardueretan. Egun, euskararen hizkuntza-komunitateko hiz- tunok askotariko historia soziolinguistikoak ditugu, jabekuntza-pro- zesuari dagokionez, erabilera-maiztasun orokorrari dagokionez, eta esparruen araberako erabilerari dagokionez ere⁴: badira euskara ama-

² Ikus Elordui (1995).

³ Euskarak ehun mila baino hiztun gehiago irabazi ditu, eta igoera hori gazteen artean gertatu da nagusiki (www.euskadi.net).

⁴ Badira euskara batua edo tokian tokiko euskara baino ez dakiten hiztunak, badira inguru hurbilean euskaldun ugari eta, beraz, euskara erabiltzeko aukera uga- ri, dituzten hiztunak eta oso euskaldun gutxi, eta aukera gutxi, dituztenak.

-hizkuntza duten hiztunak eta, gero eta gehiago, bereziki gazteen artean (%48), euskara bigarren hizkuntza (2H) dutenak (www.euskadi.net). Badira euskara batua baino ez dakiten hiztunak, eta tokian tokiko euskara baino ez dakitenak, baita euskara batua eta tokian tokiko euskararen hiztunak direnak. Badira inguru hurbilean euskaldun ugari eta, beraz, euskara erabiltzeko aukera ugari dituzten hiztunak, eta oso euskaldun gutxi eta aukera gutxi dituztenak. Zenbaite-tan, gainera, inguruan euskaldun ugari izanda ere, hiztun horiek kode desberdinak erabiltzen dituzte (euskara batua batzuek eta tokian tokiko hizkerak besteek). Azkenik, badira hizkuntza-esperientzia zabala duten hiztunak (esparru publiko zein pribatuetan euskara maiz erabiltzen duten hiztunak) eta hizkuntza-esperientzia mugatua dutenak (mota jakin bateko esparruetan edo esparru desberdinetan esperientzia mugatua duten hiztunak). Ondorioz, egungo euskaldunen tipologia aniztasuna, heterogeneotasuna, du ezaugarri.

Aniztasun horrekin arras lotuta dago euskarak duen egoera sozio-linguistikoa ulertzeko ezinbestez kontuan hartu behar den beste ezaugarri bat, alegia, euskal komunitatearen trinkotasun falta. Urruneko harreman-sareei dagokienez, aurrerapauso handiak egin ditugu joan zen mendearekiko (komunikabideak, argitalpenak,...), hedatu diren sare ugariaren balioa oraindik maila sinbolikoan geratzen bada ere. Hurbileko harreman-sareak trinkotzeko aurrerapausoak, berriz, txikiagoak izan dira: familietan eta lagunarteko giroan euskara ama-hizkuntza duten euskaldunen eta euskara 2H dutenen arteko harreman-sareak oso motelak dira oraindik⁵. Harreman-sareen moteltasun horrek zaildu egiten du euskal komunitateak erabilera-esparru horiek mantentzeko eta berreskuratzeko behar duen trinkotzea.

⁵ Elkarriz ulertzeko arazoak aipatzen dituzte askotan euskara ez erabiltzeko arrazoiak hizkuntza hau lehen hizkuntza (1H) eta bigarren hizkuntza (2H) duten hiztunek (Elordui, 1995, 2001; Esnaola, 2002).

Bestalde, hizkuntza baten normalizazio soziolinguistiko eta linguistikorako, garrantzi handia du esparruak irabazteak, eta irabazita-koen sendotzeak ere. Izan ere, euskarak egun irabazi dituen prestigioa eta baliagarritasun maila erabilera-esparru berrietan erabilia izatearekin berarekin loturik daude neurri handian. Irabazte honetan euskarak aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu, baina irabazitako esparru hauetako askotan, mundu akademikotik kanpoko gehienetan, oraindik oso murrizta da erabilera: oso hiztun gutxi osatutako diskurtso-komunitateak dira, eta maiz hiztun gutxi horiek oso sakabanatuta daude.

Komunitatearen trinkotze faltak eta esparru berrietako erabilera murriztak, hutsune nabarmenak ekartzen dituzte hiztunen komunikazio-gaitasunean. Hiztun askoren kasuan hurbileko erabilera-esparruetan azaleratzen dira komunikatzeko gaitasunaren mugak: hiztun horiek ez dute erabilera-esparru horietako errepertorio linguistikoa ezagutzen. Beste askori esparru publikoei dagokien errepertorioa ez ezagutzeak oztopatzen die esparru berri horietako erabilera. Euskaldun gehienok, gradu eta esparru desberdinetan bada ere, bizi ditugu euskararen normalizaziorik ezak dakartzan ondorio soziolinguistiko eta linguistikoak. Hizkuntza-komunitate normalizatueta harreman-sare arinak eta oparoak izaten dira erabilera-esparru askotan. Hori dela eta, era askotako erregistroak eta estiloak garatzen dira. Komunitate horietako hiztunek, gradu desberdinetan bada ere, beren hizkuntzaren gramatika ez ezik, beren komunitateko kideekin partekatzen dituzten arau soziopragmatikoak ere ezagutzen dituzte: komunitate horretan hizkuntza-baliabide bat noiz, norekin, zein tesuingurutan erabil daitekeen jakitera eramaten dituen komunikazio-gaitasuna dute hiztunek. Aitzitik, euskara bezala, erabilera-esparru mugatuak eta harreman-sare urriak eta geldoak dituzten hizkuntzetan—hizkuntza gutxituen komunitateetan, desagertzeaz daudenetan (Dorian, 1981; Dressler, 1981; Elordui, 1995, 2003), kreoleren komunitateetan (King, 1989), etorkinen komunitateetan (Gal,

1979)— zaila da erregistroetan eta estiloetan egituratua den hizkuntza-eredu heterogeneo baten garapena eta hedapena. Komunitateko hiztun askok esparru gutxi batzuetara mugatuta dagoen erreperitorio linguistikoa baino ez dute ezagutzen.

2. Zientzialarien euskara eta euskararen normalizazioa

Zientzialariak ez daude euskararen normalizazio ezak ezartzen duen gupil zorotik kanpo. Areago, normalizazio ezak diskurtso-komunitate hauetan ezartzen dituen baldintzak bortitzagoak dira, bestelako diskurtso-komunitateetan ezartzen dituenak baino. Baldintza hauek kontuan hartzea ezinbestekoa da euskaraz idatzitako testu zientifikoetan daudekeen arazo linguistikoak ulertzeko. Izan ere, espero izatekoa denez, baldintza soziolinguistiko horiek agerian geratzen dira diskurtso-komunitate horietako kideen testuetan ere: aurreago agertuko ditugu adibide gisa testu mailan eta terminologian normalizaziorik ezak dakartzan zenbait arazo linguistiko.

2.1. Normalizazio ezak zientzialarien diskurtso-komunitateari ezartzen dizkion baldintzak

Zientzialariak, gainerako euskaldunak bezala, askotariko historia soziolinguistikoak dituzten hiztunak dira bai jabekuntzari dagokionez, bai hizkuntza-esperientziari dagokionez ere: euskara ama-hizkuntza eta 2H duten hiztunak daude zientzialarien artean; euskara testuinguru akademikitik kanpo erabiltzeko oso aukera gutxi dituztenak eta beren eguneroko jarduera gehienetan erabiltzen dutenak. Espero izatekoa da, beraz, zientzialari askok, gainerako euskaldunek bezala, zenbait arlotan erreperitorio linguistiko mugatua izatea. Muga horiek zientzialari horien testuetan islatuko dira; izan ere, hizkuntza orokorraren ezagutzatik atera behar dira erregistro funtzionaletan jarduteko behar diren eta garatuko diren hizkuntza-baliabideak.

Bestetik, ezin ahantz dezakegu zientziaren euskara hizkuntzaren kodifikazio- eta estandarizazio-prozesuarekin batera garatzen ari dela eta prozesu hori oraindik ere bukatu gabe egoteak zaildu egiten duela zientziaren hizkeraren egonkortzea. Izan ere, estandarizazio-prozesuaren hutsuneek eragin handiagoa dute hizkera berezitetan, familiarterako eta lagunarterako erregistroetan baino. Hori hala da hizkera tekniko-zientifikoek hizkuntzaren estilo zaindua hartu ohi dutelako abiapuntutzat⁶: estilo zaindu hori garatzeko sortu zen hain zuzen euskara batua eta euskara batuaren barruan garatu da azken urteetan nagusiki.

Zientzialariek, gainera, euskararen ohiko erabilera-esparruetako hiztunek ez bezalako oztupoak gaingitu behar dituzte, euskarak zientzia-arloetan duen esperientzia faltarekin lotuta daudenak: familiarterako erregistroetan edota literaturan ereduak dituzte hiztunek; zientzialorretan berriz, oso laburra da euskarak egin duen bidea. Zientziaz aritzeko erabiltzen diren hizkuntza nagusiez, bereziki ingelesez, erduzkotzat har daitezkeen testu ugari ditugu. Testu horietako hiztegi eta diskurtso-baliabideak ikasiz eta erabiliz jakintza-arlo horietako ezagutza transmititzen dugu. Zientziaren euskararako aldiz, askoz ere urriagoak dira erduzkotzat har ditzakegun testuak.

⁶ Ohikoa da zientziarako kode estandarra erabiltzea: zientzialarien diskurtso-komunitate bakoitza osatzen duten hiztunak oso talde txikia izaten dira hizkuntza-komunitate osoaren barruan, eta hiztun horiek, gainera, askotariko jatorri geografikoak dituzte. Hiztun horiek ez dute, beraz, eremu geografiko bati dagokion kode jakin bat partekatzen eta kode komuna erabili behar dute. Horrek esan nahi al du euskalkiek inolako ekarpenik ezin egin diezaieketela hizkera berezitetan? Gure iritziz, garbi dago euskalkiek hizkuntzaren erabilera guztiei egin behar dietela eta, egiten dietela, beren ekarpena. Kode estandarerako baliabide jakin bat aukeratzen da komunitate osoaren barruko komunikazioa oztopa dezakeen sistemarik gabeko aldakortasuna dagoenean. Baina hizkera desberdinetan hizkuntzak garatu duen ondarea, hizkuntza osoaren ondarea da, eta hizkuntza garatzeko erabili ahal eta behar dugu.

Gero eta gehiago dira zientzialarien diskurtso-komunitatean integratzen diren hiztun berrien artean beren ikasketak edo, ikasketen zati bat behintzat, euskaraz egin dutenak, baina ez dugu ahaztu behar duela urte gutxi arte zientziaz aritzen ziren hiztun guzti-guztiek, oraindik ere testu-sortzean aktiboenetakoak diratekeenek, beren ikasketak erdaraz eginak zituztela. Hizkera berezituak jakintza berezituarekin batera ikasten ditugun hizkuntzaren erabilerak dira eta beraz, aurreko belaunaldietan testu tekniko-zientifikoak sortzeari ekin behar izan dioten hiztunek faltan izan dute edozein hizkuntza-ekoizpen egin aurretik izan ohi dugun *inputa*. Areago, pentsatu behar dugu arazo hau ez dela egun batetik bestera konponduko: belaunaldiak beharko ditugu konpontze bidean jartzeko. Izan ere, beren jakintza-esparruko ikasketak euskaraz egin dituzten hiztunek euskarazko *inputa* izan badute ere, *input* hori “euskarazko *inputik* gabeko hiztunek” ekoizitakoa izanik, aurreko egoerak baldintzatua da neurri handian.

Edonola, zientzialariek, gainerako hiztunek ez bezala, badute ezaugarri bat alor berezitu horietako euskara garatzeko ezinbesteko bihurtzen dituen: euskal hiztunak izateaz gain, beren alorrean hizkuntza garatzeko behar den ezagutza pragmatikoa dute (Cabré, 2001). Baina, kontuan hartu behar dugu zientzialarien diskurtso-komunitatea oso kide gutxik osatzen dutela eta haien arteko harreman-sareak oso geldoak direla. Izan ere, zientziaren hizkerak testuinguru didaktikoetan garapen nabarmena izan badu ere, askoz ere mugatuagoa da adituen arteko komunikaziorako erabilera: irakasle-ikasle erako sare bertikalak oso arinak dira, baina oso geldoak dira adituen arteko sare horizontalak, diskurtso zientifikoa eta terminologia garatzeko eta egonkortzeko funtsezkoak direnak.

2.2. Zientzialariek sortzen dituzten testuak eta euskararen normalizazioa

Hizkera berezituak, eta horien artean zientziaren hizkera, hizkera orokorretatik bereizten dira bi ezaugarrirenegatik: sortzen dituzten

ahozko eta idatzizko testu motengatik eta batez ere, erabiltzen duten terminologia berezituagatik (Cabré, 1999: 298). Hizkuntzaren desoreka soziolinguistikoak bi ezaugarri horietan du eragina.

Oro har onarturik dago edozein testu sortzeko orduan hiztunok hiru eragiketa psikolinguistiko jartzen ditugula abian: testuingurutzeara, egituratzeara eta testualizatzea⁷. Euskararen normalizaziorik ezak eta zehazkiago zientzialarien diskurtso-komunitateko hiztunek bizi dituzten baldintza soziolinguistikoek eragina dute hiru eragiketa horietan, baina batez ere testuinguru jakin baterako hizkuntza-baliabide egokia aukeratzea eskatzen digun testualizazioan: zientzialariak dira testuinguruari dagozkion baldintzak hobekien baliozta ditzaketenak, eta bestetik, haiek dira testuinguru bakoitzean testua antolatzeko ereduak hobekien ezagutzen dituztenak. Testualizatzean azaleratuko dira aurreko atalean azaldu ditugun arazo soziolinguistikoen ondorio linguistiko gehienak. Zenbait hiztunek hizkuntza-gaitasun mugatua izateak, estilo zaindua egonkortze-prozesuan egoteak, eredu modura erabil daitekeen *input* egokia ez izateak, eta harreman-sareak geldoak izateak, zaildu egingo diote hiztunari kontzeptuak eta ideiak hitzetan eta enuntziatueta jartzeko euskararen baliabideen artean testuingururako egokiena aukeratzea. Ez dezagun ahantz testuak sortzeko orduan ez garela bakarrik abiatzen infinitu konbinazio egiteko

⁷ Diskurtsoa garatzeko hiztunok hiru jarduera psikolinguistiko erabiltzen ditugu, batera dihardutenak: *testuingurutzeara*, *egituratzeara* eta *testualizatzea*. *Testuingurutzeara*ren bidez testuinguruaren baldintzak (solaskideen arteko harremana, gaia, egoera, e.a.) aztertzen dira. *Egituratzeara*, testuari egitura orokorra ematen diogu (hasieran zer, ondorioetan zer, nola hasi nola agertu ideiak, nola amaitu); beti ere testuinguruaren baldintzak kontuan harturik. *Testualizatzea* prozesuan ideiak hitzetan eta enuntziatueta jartzen ditugu. Horretarako, testuinguruaren baldintzak eta testuan darabiltzagun hizkuntzaren baliabide linguistikoak kontuan hartzen ditugu eta baliabide linguistiko horien artean testuinguruari hobekien egokitzen zaizkionak zein diren erabakitzen dugu. Azken prozesu horretan, beraz, hizkuntzaren barne arauak eta hizkuntza horrek koherentzia eta kohesiorako eskaintzen dizkigun baliabideak izaten ditugu kontuan.

aukera ematen digun hizkuntza-sistemaren ezagutzatik: testuinguruaren arabera hizkuntza-esperientziak mugak ezartzen dizkio sistema horren sortze-ahalmen infinituari. Besteak beste, hizkuntza-esperientziaren bidez ikasten dugu zein diren hizkuntza-komunitate jakin batean finkaturiko testu-motak, eta testu-mota bakoitzean erabil daitezkeen hizkuntza-baliabideak.

Hiztunen komunikazio-gaitasun mugatua hiztunen sortze-ahalmenarekin lotu izan da (Zuazo, 2000:132) baina, gure iritziz, hain zuzen ere alderantzizkoa da normalizazio ezak dakarkigun arazoa. Hizkuntza normalizatu bateko hiztunek oso gutxitan dute baliabide lexiko edota diskurtsiboak sortzeko beharra. Izan ere, morfologia lexikoaren modularen eraketa-arauak blokeatu ohi dira nozio jakin bati erreferentzia egiteko hiztegi-elementua badagoenean. Bestetik, diskurtsoa eratzeko alde aurretik finkatuta dauden errutinetara jotzen dute hizkuntza normalizatuetakozko hiztunek. Esate baterako, *manifestación* izena egonda, hiztunek ez dute *manifestamiento* sortzen edota, gutun bat idatzi behar dutenean, finkaturiko formuletara jotzen dute, gutun motaren arabera: *Querida amiga! Estimado compañero! Excelentísimo señor*. Normalizatu gabeko hizkuntzetan eta areago hizkuntza horren esparru berrietan, ez dugu aurkitzen ez nozio-denominazio lotura zehatza egitea posible egiten digun adostasunik, ezta diskurtsoaren antolakuntzan laguntzen digun errutinarik ere. Bestela, halakorik dagoenean, hiztun guztiek ez dituzte ezagutzen (erdi)finkatuta dauden baliabideak. Hortaz, askoz ere maizago jotzen dute hiztunek eraketa-arauetara. Gehiegizko sorkuntza dateke gure iritziz normalizazio-ezaren sintomarik aipagarriena eta ez hiztunen sorrera-gaitasun mugatua. Antzeko zerbait gertatzen zaigu bigarren hizkuntza bat ikasten dugunean: hizkuntzaren eraketa-arauak (gramatika-arauak) erraz ikas ditzakegu, eta zailagoa gertatzen zaigu, ordea, esangura konposizionalik ez duten segida lexikalizatuak, esapideak, errutinak, erabilera-arauak e.a. ezagutzea. Hizkuntza-sistemaren ezagutzaz gain, esparruz esparruko hizkuntza-esperientzia behar da hauek ikasteko.

Zientziaren euskararen gaira itzuliz, eredurik ezak, erabilera mugatuak eta adituen arteko harreman-sareen geldotasunak zaildu egiten dute zientziaren erreferentzia-terminoen eta esparru desberdinetako diskurtso-baliabideen egonkortzea, finkatzea eta hedatzea. Testu berezituaren bereizgarritzat hartu ohi dira terminoak, alegia, jakintza berezitua enkapsulaturik gordetzen duten unitate lexikoak. Eginkizun horretarako ezinbestekoa da nozio-denominazio lotura estua, adituen komunitatearen barruko hitzarmen (inplizito edo esplizitoa) behar duena⁸. Adituen arteko harreman-sare arinen bidez lortzen den hitzarmen hori ezinbestekoa da “designazio” hutsetik “denominazio” deritzonera, alegia, erreferentzia-terminoetara, heldu ahal izateko. Hortaz, terminoek hiru alderdi uztartzen dituzte: alderdi linguistikoa, alderdi kognitiboa eta alderdi soziala. Baina hizkuntza normalizatuetan, zientzialarien komunitatean finkaturiko erreferentzia-terminoez gain, eta neurri handian erreferentzia-terminoak ondo finkaturik daudelako, aldakortasun denominatibo eta kontzeptuala ere ikus daiteke espezializazio-maila desberdinetako testuetan, estilo-arrazoiak direla eta (Cabr , 1999; Freix , 2003). Egoera soziolinguistikotik ezegonkorretan bizi diren hizkuntzetan aldiz, sistematik gabeko aldakortasunaren gradu altua aurkitzen dugu, azken batean estilo bakarrerako joera ere ekartzen duena⁹ (Elordui, 2003, Zabala, Elordui, Mart nez, 2004). Gainera, honelako egoeretan, ohikoa izaten da aurkako noranzkoan diharduten bi eratako indarrak egotea: batetik hitzunek komunikazio- edota gaitasun-arazoak saihesteko hizkuntza nagusietako eredu finkatu eta partekatuetara jotzen dute konpentsazio-estrategien bidez eta, bestetik, bada auzo-hizkuntzen eraginari

⁸ Terminologiaren normalizaziorako erakundeek lagun dezakete erreferentzia-terminoen ezarpenean, baina ez da normalizazioa lortuko adituek erakunde horien erabakiak, ezagutu, onartu eta erabili arte.

⁹ Altonagak (2002: 143) ezin hobeto azaltzen du prosa zientifikoa euskaraz idazteko orduan erreferentzia-terminorik ez egoteak —*termino kanonikoak* esaten die berak—zenbateraino mugatzen dizkigun estilo-aukerak.

berehala aurka egin nahi dion kontrol soziolinguistiko zurruna normalizazio-eragileen aldetik. Era honetako tentsioek sistemarik gabeko aldakortasuna areagotzen dute eta “dispertsio terminologikora” (Gutierrez Rodilla, 1998) ere eramaten gaituzte: aditu, irakasle, itzultzaile, zuzentzaile eta erakunde desberdinek irtenbide desberdinak ematen dizkiete konpondu nahi dituzten mailegu eta kalkoei¹⁰.

Izan ere, terminologiaren eta oro har diskurtso tekniko-zientifikoaren ezaugarri bereizgarriei, alegia, zehaztasunari, sistematikotasunari, egokitasunari eta trinkotasunari ere, eragiten die hizkuntza-baliabideek adituen komunitatearen barruan zirkulazio murrizta izateak: batetik, egonkortze faltak aldakortasun asistematikoaren gradu handia¹¹ eragiten duelarik, zehaztasuna eta sistematikotasuna ere jar ditzake arriskuan; bigarrenik, adituen komunitatean dagoen erabilera-maiztasun baxuak moteldu egiten du hizkuntza-baliabide lexiko eta diskurtsiboan egokitze prozesua; azkenik, trinkotasuna eta gardentasuna alderantzizko noranzkoan handitu ohi direlarik, zientzialarien diskurtso-komunitatearen barruko adostasun faltak, zaildu egiten du opakoagoak izan ohi diren hizkuntza-baliabide trinkoen erabilera, espezializazio maila altuko testuen bereizgarria izan ohi dena. Zehaztasuna, sistematikotasuna eta trinkotasuna dira hain zuzen testuen espezializazio mailaren arabera aldatzen diren ezaugarriak: espezializazio maila jaistearekin batera, ezaugarri horien gradua ere, jaitsi egiten da.

Esan dugunez, hizkuntzaren normalizazio ezak oztopatu egiten du diskurtso-baliabideen garapena eta finkapena, zehazkiago hizkera berezitetan hizkuntza normalizatueta espezializazio mailaren arabera egon ohi den aldakortasun-sistema garatzea eta egonkortzea.

¹⁰ Altonagak (2002: 143) *babelizazio* deritzo fenomeno honi.

¹¹ Euskararen terminologiaren aldakortasunaren azterketa ikus daiteke Zabala, Elordui & Martínez (2004) lanean.

Euskara irabazten joan den alor berrien artean batzuk hizkera orokorrenak dira, alegia, hizkuntza-komunitateko hiztun guztiak dituzte testu horiek ekoizle edota hartzaile (kazetaritza, hezkuntzaren zenbait esparru, administrazioaren zenbait esparru); beste zenbait alor berriz, esparru berezituak dira, zientzia eta teknikaren esparruak adibidez. Testuak berezitutzat hartzen dira gizartean testu horiek ulertzeko prestakuntza berezia behar dela onarturik dagonean, eta izan ere, testuak berezitutzat hartu ahal izateko, ekoizleak behintzat aditua behar du. Testuari berezitasun maila desberdinak onartzen zaizkio hartzailearen ezaugarrien arabera: hartzailea ere aditua, aditua izateko ikasten ari dena, ez-aditua izan daiteke. Euskararen presentzia nabariki handitu da azken urteotan testu didaktikoetan eta dibulgaziozkoetan, alegia, ez-adituei zuzendutako testuetan, baina askoz ere neurri txikiagoan adituen arteko komunikazioa bideratzeko testuetan: horrelako testuak ingelesez edo bestelako hizkuntza handietan idazten dira gehien bat. Oso diskurtso-baliabide desberdinak erabiltzen dira finkatutako zientziaren ikuspegia duten testuetan, testu didaktikoetan adibidez, eta garatuz doan zientziaren ikuspegia duten testuetan, artikuluko zientifikoetan eta doktoretza-tesietan adibidez. Diskurtso-baliabide horiek garatzeko eta finkatzeko beharrezkoa da harreman-sare arinak dituen zientzialarien diskurtso-komunitatea egotea. Diskurtso-baliabideei ez ezik, terminologiari berari ere eragiten dio espezializazio-mailak. Izan ere, espezializazio mailarekin lotuta daude neurri handian hizkuntza normalizatueta terminoen aldakortasun denominatiboa eta aldakortasun kontzeptuala (Ciapuscio, 2003; Freixa, 2003).

Amaitzeko esan zientzia-testuen arteko aldakortasun-sistema ez ezik, hizkuntzaren gainerako esparruekiko lotura ere hartu behar dela kontuan. Hau agerian uzten saiatzeko, Lexikologia Bertikala deritzon ikuspegia (Wichter, 1994; Ciapuscio, 2003) hartuko dugu abiapuntutzat. Ikuspegi honen arabera, terminoak hizkuntzen hiztegi-ehunaren zati bat baino ez dira, eta hizkuntza baten hiztegiaren ezagutza

hizkuntza-komunitatean zehar banatuta dagoelarik, hizkuntza baten hiztegia da mota desberdinetako hiztunen (esparru jakin bateko adituen eta ez-adituen) ezagutza lexikoen batura. Ikuspegi honetatik, espezializazio maila desberdinetako testuek garrantzi handia dute “hizkuntza-komunitateak partekatzen duen ezagutza lexikoaren garapenerako”. Testu didaktikoez, dibulgaziozkoek eta testu entziklopedikoez garrantzi handia dute normalizazio bidean dagoen hizkuntza baterako; izan ere, zientzialarien hizkuntza-komunitatea gainerako hizkuntza-komunitatearekin lotzen dituzten testuak dira hauek.

Hasteko, testu didaktikoei esker, ikasleak apurka-apurka jakintza berezitua partekatzen lagunduko dioten terminologia eta diskurtso-baliabideak ikasten ditu. Hizkuntza-baliabide horiek euskarri modura baliatuko ditu ikasleak gero eta espezializazio maila altuagoetara iristeko. Hasierako mailetan bereganatzen duen terminologia, beraz, funtsezkoa da edozein jakintza-alorretako terminologia egituratu ahal izateko. Oinarrizko maila hauetan hiztegi-eredu partekaturik ez egozteak zaildu egiten du terminologia normalizatua egotea espezializazio maila altuagoetan. Hortaz, testu didaktikoak oso garrantzitsuak dira espezialitate-eremu bakoitzaren diskurtso-komunitatea trinkotzeko.

Bigarrenik, testu entziklopedikoez hizkuntza-komunitatearen jakintza lexiko-entziklopedikoa biltzen saiatzen dira, eta beraz, egin-kizun garrantzitsua izan dezakete hizkuntza jakintza-alor espezializatu zenbaitetan behar bezain normalizatuta eta egonkortuta ez dagoen faseetan, terminologia finkatzen baitute eta erabilera-testuinguru didaktikoetan eskaintzen baitiete terminologia hori erabiltzaileei.

Azkenik, dibulgazio-testuak espezialitate-eremu desberdinetako hiztegiaren zati bat zabaltzen dute hizkuntza-komunitatean. Berezik, hezkuntza-sistematik kanpo egon diren hizkuntza gutxituetan hizkuntza hauetan ikasteko aukerarik izan ez duten hiztunen hutsuneak konpentsatzen lagun dezakete. Hori dela eta, egin-kizun garrantzitsua dute hizkuntza-komunitatea trinkotzeko. Edonola, espezializazio-

maila baxuko testu hauek lotura izan behar dute adituena arteko komunikazioa bideratzen duten testuekin: adituak dira jakintza-alor bateko terminologia modurik sistematiko eta zehatzenean egitura dezaketena hiztunak.

Euskara irabazten doan esparru berriak (orokorrak eta berezituak) uztartu behar dira elkarren artean eta bai lehenago euskarak jadanik zituen esparruekin ere: hizkuntzaren esparruz esparruko erabilerak elkarren artean egokituz joan behar gara hizkuntzaren normalizaziorantz eramango gaituen “hizkuntza-eredu partekatua” deritzogun¹² puzzlea osatuz joango bagara. Hortaz, hizkuntza osoaren aldaketa eta eboluzio prozesuan murgilduta gaudelarik, ezin izan daitezke oraingoz erabat asegarriak, ez euskaraz idazten ditugun testu zientifikoak, ezta esparru orokor berrietako testuak ere. Areago, espero izatekoa da testu orokorrak asegarriagoak izatea testu tekniko-zientifikoak baino, hurbilago baitaude euskarak orain arte landu dituen esparruetan egiten diren hizkeretatik eta, beraz, zabalagoa baita komunitateko hiztunok esparru horietan partekatzen dugun hizkuntza-esperientzia. Edonola, duela hogeitau sortutako testuekin erkatzea baino ez dugu, ikusteko euskaraz idazten diren testuak gero eta asegarriagoak direla. Erabileraren igoera funtsezkoa da hizkuntza-ezagutza partekatua zabaltzeko eta ondorioz, hiztunen esparruz esparruko komunikazio-gaitasuna handitzeko.

Laburbilduz, euskarak oro har dituen zenbait arazo soziolinguistiko areagotu egiten dira zientzialarien komunitatean: denetariko hiztunak daude eta, gainera, erabilera berriak izanik, zaila da erreferentzia-testuak aurkitzea. Euskarak berriki irabazten doan esparruetako testuak eta areago testu tekniko-zientifikoak hizkuntzaren kodifikazio eta estandarizazio prozesuarekin batera ekoizten ari dira eta beraz, egokitze-prozesuan daude oraindik, bai elkarrekiko, baita euskararen

¹² Hizkuntza-eredu partekatuari buruz ikus Elordui eta Zabala (2004).

ohiko esparruetako testuekiko ere. Egokitze hau ezinbestekoa da euskal komunitatean testuinguru bakoitzean baliabide egokia zein den jakitea posible egingo digun hizkuntza-eredu partekatua garatuko badugu. Harreman-sareen geldotasunak eta kontrol soziolinguistiko zurrunak zaildu egiten dute sortuz doazen hiztegi- eta diskurtso-baliabideak garatzea, egokitzea eta finkatzea. Gainera, zientzialarien diskurtso-komunitatean hizkuntza-baliabideak ez partekatzeak diskurtso tekniko-zientifikoaren ezaugarri bereizgarriei (zehaztasuna, sistematikotasuna, trinkotasuna) eragiten die. Orobat, espezializazio mailaren araberako aldakortasun-sistema garatzea oztopatzen du.

3. Euskararen hizkuntza-sistema eta zientziarako erabilera

Hizkuntzaren erabilera berrien zuzentasuna eta egokitasuna epaitu ahal izateko, ezinbestekoa dugu irizpide linguistiko garbiak izatea¹³: Zer dira erabilera hauek hizkuntzaren gainerako hizkera, aldaera edota ekoizpenekiko¹⁴? Hizkera berezituaren azterketaz arduratu diren ikertzaileen kezka garrantzitsuenetakoa izan da hau eta egun oro har onarturik dago hizkera berezituak hizkuntza baten gauzatze pragmatikoak baino ez direla (Varantola, 1986; Picht eta Draskau, 1985; Sager, Dungworth eta Mc Donald, 1980; Beaugrande, 1987; Kocourek, 1982). Aditu batek bere espezialitateko gai berezitu batez testu bat (ahozkoa zen idatzizkoa) sortzen duenean, orduan esan dezakegu testu berezitutzat hartzeko baldintza pragmatikoak betetzen direla. Hortaz, bigarren atalean zehaztu dugun bezala, hizkera berezituak elkarren artean eta hizkera orokorrekiko bereizten dira sortzen dituzten testu motengatik eta terminologiarengatik.

¹³ Bat gatoz Larringan eta Idiazabalekin (2004) euskararen kalitatea aztertzeke teoria eta metodologia baten beharra aldarrikatzen dutenean.

¹⁴ Euskaraz hauek izendatzeko sortzen zaizkigun arazo terminologikoez ikus Antton Elozeji (2002: 55-74).

Hizkuntzaren sistema bera erabiltzen dute hizkera orokorrek eta berezituak. Edonola, atal honetan ikusiko dugunez, hizkuntzaren erabilera berriak egiten ditugunean, hiztegi-elementu berriak sortu ez ezik, lehenago zeuden elementuak informazio berriarekin aberasten ditugu. Hori dela eta, hizkuntzaren erabilera berriek hizkuntza-sistemari berari ere eragiten diote, lehenago aktibatu ez diren balioak eta konbinazio-arauak aktibatuz eta hizkuntzak dituen baliabideen erabilera-maiztasuna aldatuz. Bestalde, aurrerago ikusiko dugun bezala, hizkera berezituak dituzten ezaugarriek (sistematikotasuna, zehaztasuna eta trinkotasuna) eragin zuzena dute hiztegian eta hizkuntza-sistema gauzatzeko moduan ere: hiztegi-elementu berriak behar dituzte, hizkera orokorreko elementuak erabiltzen dituztenean tasun semantikoen hautapen finagoa egitea eskatzen digute, eta zenbait konbinazio-arauren emankortasuna handitzen dute. Irakurleari gure argudio-ildoak ulertzen laguntzeko, oinarrizko ideia batzuk eskainiko dizkiogu ezer baino lehenago, hizkuntzalaritzaren teoriaren arabera hizkuntza-sistemak nola funtzionatzen duen ulergarriagoa egitekotan.

3.1. Hizkuntza-sistema: hiztegia eta konbinazio-arauak

Aurreko ataletan azaldu dugun bezala, euskararen normalizazioak aurrean duen erronka garrantzitsua da hain zuzen berriki irabazi dituen esparruetako euskara garatzea, egonkortzea eta hedatzea. Garbi dago garapen horretarako hizkuntza-baliabide berriak behar direla, eta espero izatekoa da baliabide horiek lehenagoko hizkuntza-erabilerak egiteko erabili dugun hizkuntza-sistema beraren bidez sortzea. Areago, espero izatekoa da erabilera berriek nolabaiteko eragina izatea sisteman bertan ere. Izan ere, hizkuntza-sistemaren ikuspegi lexicalista batetik behintzat, hizkuntza-sistema hitzunik duten ezagutza lexicotik abiatzen da konbinazioak egiteko. Honi aurreko atalean aipatu dugun Lexikologia Bertikalaren ikuspegia gaineratzen badio-

gu¹⁵, eremu berrietan hitzunok ditugun hizkuntza-esperientzia berriek hiztegi-elementuen informazioa aberastuko dute esparru jakin bateko baldintza pragmatikoekin, esangura berriekin e.a. Ondorioz, sistema gauzatzeko moduari eragingo diote erabilera berriek. Edonola, hiztegi-unitateen aberaste honek aberastea bera egiten den diskurtso-komunitatearen adostasuna ere behar du, hitzunei komunikatzeko baliagarria gertatuko bazaie.

Hizkuntza-sistema hiztegi abstraktu batez eta konbinazio-arau sorta batez osaturik dago. Hiztegi-elementu bakunak hotsen eta esanahien konbinazio arbitrarioak dira. Hiztegi-elementuen bi alderdi horien arteko lotura ezinbestekoa da hizkuntza komunikazio-tresna modura erabili ahal izateko, eta lotura hori da elkarren artean komunika daitezkeen hizkuntza (edo hizkuntza-komunitate) bateko hitzunek partekatzen duten funtsezko ezagutza. Ezagutza hori partekatu ahal izateko, hitzunok harremana izan behar dugu hizkuntza horretako beste hitzun batzuekin, alegia, hizkuntza erabili behar dugu, edo beste hitz batzuetan esanda, hizkuntza-esperientzia behar dugu. Konbinazio-arauetz osaturiko sistema bat ere partekatzen dute hizkuntza bateko hitzunek. Izan ere, sistema horri esker posible dugu sekula entzun ez ditugun esaldiak sortzea eta, gainerako hitzunek, burmuinean arau sorta bera dutelarik, guk sortutakoak interpreta ditzakete. Hizkuntza sortzailea dela esaten da ezaugarri hori dela eta.

Konbinazio-arauak erabiliz, hiztegi-elementu konplexu berriak ere sor ditzakegu. Hiztegi-elementu konplexu hauek konbinatu diren elementuen esanguratik ondoriozta daitekeen esangura dute batzuetan, alegia, esangura konposizionala dute (*haize-errota, ugaritasun,*

¹⁵ Lexikologia Bertikalarena ikuspegi lexikalista gogortzat har dezakegu Cabréren (1999) zentzuan: hiztegi-elementuek informazio semantikoa eta gramatikala ez ezik, erabilerari buruzko informazioa eta informazio entziklopedikoa ere izango lukete.

idazle, lan egin...) baina, beste batzuetan, ez dute esangura konpositionalik (*azeri-buztan, aniztasun, hanka egin, ez da ahuntzaren gau erdiko eztula...*). Hiztegi-elementu horiek lexikalizatuta daudela esaten da¹⁶, eta esangurarekin lotu ahal izateko arbitrariotasun maila bat duten neurrian, komunitate bateko hiztunen hizkuntza-esperientzia partekatuaren bidez bakarrik lor dezakete hizkuntza-elementu izateko behar duten ezaugarria, alegia, hizkuntza bat erabiltzen duten solaskideek horren esanguraren berri izatea. Izan ere, hizkuntza komunikazio-tresna modura erabili ahal izateko, solaskideek konbinazio-arauak eta hiztegiaren ezaugarriak ezagutu behar dituzte.

Gramatika-sistema erabiliz sortzen ditugun esaldien esangura ez da beti izaten hitzez hitzekoa. Adibidez, A solaskideak *-Pairaezina zara!!* esaldia esan, eta B solaskideak *-Bai, nik ere maite zaitut* erantzuten badio, A solaskideak jakin behar du esaldi horren esangura, testuinguru horretan, ez dela *nik+ere+maite zaitut* elementuen esanguraren batura hutsa: esaldiak testuinguru horretan duen zentzua interpretatzen jakin behar du. Pragmatika da interpretazio-arauen azterketaz arduratzen den jakintza-alorra, eta berriro ere hiztunak diskurtso-komunitate batekin partekatu behar du hizkuntza-esperientzia interpretazio-arau hauek bereganatu ahal izateko. Bestetik, diskurtso-komunitate jakin bateko hiztunek duten hizkuntza-esperientzia partekatuaren ondorioz, zenbait esapide edota errutina hobesten dira testuinguru eta funtzio jakin baterako, sistemak onartzen dituen konbinazio guztien artean. Horrela, ipuin bat kontatzerako doan hiztunak gramatika-sistemak eskaintzen dizkion aukera guztien artean seguruenik *Bazen behin* aukeratuko du ipuinari hasiera emateko eta ipuinari bukaera emateko, *Hala bazan edo ez bazan sar nazatela kala-bazan* moduko esapidea erabiliko du.

¹⁶ Ikus Contreras eta Suñer (2004).

Hortaz, hizkuntza komunikazio-tresna modura erabili ahal izateko, infinitu konbinazio egitea posible egiten digun gramatika-sistema behar dugu, baina horretaz gain, hizkuntza-komunitate batean hizkuntza-esperientzia partekatua bidez garatzen diren hotsen eta esanguren edota zentzuen arteko konbinazio arbitrarioak, eta testuinguru pragmatiko jakin baterako finkatzen diren errutinak ere ikasi behar ditugu. Hain zuzen ere erabilerarekin lotutako azken alderdi hauek huts egiten dute hiztunen arteko harreman-sareek eta erabileramaiztasunak huts egiten duten normalizatu gabeko hizkuntza batean.

3.2. Hizkuntzaren erabilera berriak eta hizkuntza-sistema

Hizkuntzaren erabilerak eragina du hizkuntzaren sisteman bertan: hasteko, hizkuntza testuinguru berrietan erabiltzen dugunean, aktibatu egiten dira aurreko erabileretan aktibatu ez diren sistemaren elementuen balioak eta konbinazio-arauak. Bigarrenik, erabilerak hotsesangura(-zentzu) lotura berriak sortzen ditu. Azkenik, erabilerak hiztegi-elementuen eta konbinazio-arauen erabilera-maiztasunari eragiten dio; izan ere, testuinguru pragmatiko bakoitzean mota jakin batzuetako nozioak adierazi behar izaten ditugu beste mota batzuetako nozioak baino gehiago, eta baliabide jakin batzuk gehiago edo gutxiago erabiltzen ditugu estilo-ohiturei jarraiki. Azter ditzagun euskara tekniko-zientifikoaren zenbait ezaugarri, aipaturiko balioak nola aktibatu diren ikusteko¹⁷.

Demagun hizkuntza-sistemaren ikuspegi lexikalista: Gramatika-sistema osoaren abiapuntua izango da hiztegi-ezagutza, alegia, hiztunok hiztegi abstraktuaz dugun ezagutzatik abiatuko gara hiztegi-ele-

¹⁷ Bestelako adibideak ikus daitezke Zabala (2003a) lanean ere.

mentu horiek konbinatzeko eta hizkuntza-ekoizpenak sortzeko. Hizkuntza-ekoizpen horiek konbinazio-arauak (morfologia eta sintaxi moduluei dagozkienak) erabiliz egingo ditugu. Hiztegi-unitate bakoitzari buruz hitzunok askotariko informazioa dugu: nola ahoskatu behar den, morfema askea edo morfema lotua den, zein gramatika-kategoria duen, zein tasun semantiko bereizgarri dituen, argumentu-egiturarik ba ote duen, zein aspektu-ezaugarri dituen, e.a. Lan honetan saiatuko gara frogatzen pragmatikak eragina duela ezaugarri hauen gainean, eta azken batean hizkuntzaren gramatikaren gainean. Izan ere, ezaugarri hauetako batzuk aldatu egiten dira hiztegi-unitate hauen balio berezitua aktibatzen denean¹⁸.

Adibide batzuk emango ditugu esaten ari garenaren froga modura. Badira euskara orokorrean morfema lotuak diren zenbait hiztegi-elementu hizkera berezitetan morfema askeak izatera heldu direnak, esate baterako *-tasun* (orokorra) / *tasun* (Hizkuntzalaritza); *-gailu* (orokorra) / *gailu* (Teknologia). Elementu berri hauei termino-izaera onartu behar diegu. Ildo honetatik esan genezake euskal komunitateko zenbait hitzunek euskara erabilera berri batzuetan erabili dutenean aktibatu dutela hiztegi-unitate horien balio berezitua, hurrenez hurren, Hizkuntzalaritzan eta Teknologian, eta hiztegi-unitate horien karakterizazioa aberastu behar dela hitzun horien ezagutza lexikoaren ekarriarekin. Edonola, gramatikaren berrikuntza hori bakarrik gertatzen da egokia testuinguru pragmatiko egokietan erabiltzen denean. Hortaz, hitzunen komunitateak partekatu beharko duen ezagutza lexikoa da *gailu* teknologian ematen zaion adieran eta morfema aske

¹⁸ Terminologiaren Teoria Komunikatiboak (Cabrè, 1999) terminologiari eta, oro har, hizkera berezituari Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik begiratzen die. Teoria honetan terminoak hizkuntzaren hiztegi osoaren parte dira eta termino-izaera lortzen dute testuinguru berezitu batean erabiltzen direnean aktibatzen den [+bereztu] tasuna dela eta. Teoria honen ikergai nagusietako bat da, hain zuzen, balio berezitu hori nola aktibatzen den deskribatzea.

modura teknologiazko testu berezitueta soilik dela egokia. Erabat lekutik kanpo dago, beraz, beste komunikazio-egoera batzuetan: “#Ekarri mahai gainean dagoen gailu hori”. Lexikologia Bertikalaren ikuspegiari jarraiki, hizkuntza-erabilera berezitu berri hauekin garatuz goazen neurrian, zenbait hiztegi-elementuri buruz hiztunen komunitateak duen ezagutza lexikoa ere aberastuz goaz, zenbait hiztunen ezagutza berriaren ekarriarekin.

Beste adibide bat dugu *multzo* eta *talde* izenena. Euskara orokorrean izen arinak direla esan dezakegu, beren erreferentzia osatzeko osagarri bat behar baitute. Tasun semantiko honek izen hauei konbinazio-arauak ezartzen zaizkienean duten jokaera mugatuko du: osagarri bat behar dute, hiru elementuko izen elkartuak osa ditzakete, e.a. Matematikaren alorrean izen hauek erabiltzen ditugunean, adierazten dituzten nozioak aztergai eta lan-tresna bihurtzen ditugu; hortaz, izen arinak izateari utzi eta erreferentziadun izen modura jokatzen dute. Berriro ere, hizkuntza esparru berri batean erabiltzeak aberastu egin du hizkuntzaren hiztegia eta gramatika.

Hizkuntza-komunitate batek, duen aldakortasun geografikoa erabiliz ere aberats dezake bere hiztegia egoera pragmatiko berezitueta-rako. Hortaz, ardatz bertikala aberastuko genuke era honetan ardatz horizontala (eremu geografikoen araberakoa) erabiliz. Horixe da euskarak egin duena *eraman/ eroan* dialekto-aldaerak baliatuz klasiko bihurtu den adibide honetan: *eroan* hautatu da Fisikarako eta hiztegi-unitate hau aberastu egin da fisikan duen balio berezituarekin¹⁹. Edonola, ardatz horizontala eta bertikala konbinatu ditugularik, korapilatu egiten zaigu hiztun desberdinen hiztegi-ezagutza: hiztun batzuek *eroan* eta *eroale* elementuak erabiliko dituzte Fisikaz ari dire-

¹⁹ Mitxelena berak aurreikusten zuen Arantzazuko Biltzarrerako txostenean hizkuntza hiztegi berriaz hornitzeko bidea izan zitekeela euskalkietan zeharreko aldakortasunaz baliatzea (Mitxelena 1968: 31).

nean, baina gainerako testuinguru guztietan *eraman* aditza erabiliko dute. Beste hiztun batzuek aldiz, *eroan* aditza erabiliko dute testuinguru guztietan, eta testuinguruaren bestelako ezaugarriek soilik iradokiko digute [+berezitu] tasuna aktibatzen ari den ala ez hiztegi-unitate horri dagokionez. Hiztegi-elementu horiei buruzko erabilera-arauak partekatuko dituzte hizkuntza-komunitateko hiztunek antzeko balioztatzeak egin baditzakete horien erabilerari buruz, baina hiztun guztiek ez dituzte erabiliko hiztegi-unitate bakoitzaren aukera guztiak. Hortaz, aldaera geografiko jakin bateko elementu baten balio berezitua zabaltzen denean, ez da berdina izango hiztun guztiek unitate horrekiko izango duten esperientzia eta erabilera²⁰.

Testuaren ingurune pragmatikoak eragin handia du testuan azaltzen diren ekintza eta gertaeren partehartzaileen tasun semantikoetan (Zabala, 2003b). Testu orokorrek gizakiei buruz hitz egiten digute oso maiz, eta zientzia-testuak aldiz, prozesu naturalez aritu ohi dira. Aldaketa hau funtsezkoa da predikatuen gauzatze sintaktikorako. Izan ere, prozesu naturalak aurrera eramaten dituzten subjektuak barne-kausaltatea duten subjektuak izan ohi dira. Barne-kausak dira ebentoari berez hasiera ematen dioten eta ebentoa bera pairatzen duten argumentuak. Prozesu hauek, beraz, aditz irangangaitz inakusativo edo inergatibo modura gauzatu ohi dira. Ikusi adibide batzuk: loratzea loredun zuhaitzen berezko prozesua da eta izarren berezko prozesua da distirratzea.

²⁰ Hiztegi-elementuei buruzko esperientzia diferentziala arazotzat hartzen du Arturo Elosegik (2002:139) euskalki jakin bateko hitzak euskara zientifikorako erabiltzearen auzia aztertzen duenean. Edonola, jatorri geografiko desberdinetako hiztunen artean, oso maiz gertatzen da baita unitate bakunen eta konplexuen artean halako esperientzia diferentziala. Adibidez, beren hizkeran *nahi* aditza eta ez *gura* aditza duten hiztunek *esangura*, *negargura*, *logura* e.a erabiltzen dituzte. Era berean, beren hizkeran *neure iritziz* esapidea erabiltzen duten hiztunek *zenbat buru hainbat aburu* esapidea erabiliko dute testuinguru egokian (Zuazo, 2000:143).

- (1) a. Zuhaitza loratu da.
- b. Izarrek distirutzen dute.

Adierazi aditza, euskal hiztegi orokorren arabera aditz iragankorra da (*Jonek bere sentimenduak adierazi ditu*). Aditz horren subjektua beti izaten da gizakia edo gizaki batek kontrolaturiko instrumentua (*Geziak noranzkoa adierazten du*): geziak ez du adierazten berez noranzkoa, gizaki batek esanahi hori egotzi diolako adierazten du geziak noranzkoa. Egun boladan dagoen gaia da genetikarena eta jakintza-alor honetan deskribatzen diren prozesuen funtsezko partehartzaileak dira geneak. Geneen berezko ezaugarria da proteinak kodetzeko informazioa gordetzea. Hortaz, geneek beren eginkizuna betetzen dutenean *adierazten direla* esaten da. Orain arte beti iragankor modura gauzatu den aditza, mota berezi bateko prozesu naturala adierazteko erabiltzen denean, subjektuaren ezaugarri semantikoak direla eta, iragangaitz modura gauzatzen da. Honelako kasuetan, hizkuntzaren sistema aldatzen ari garela ulertuko du arazoaren azalean geratzen denak, baina benetan sistemak berak bazeukan baina lehenago gauzatu ez den aukera bat gauzatzen ari gara, baldintza pragmatiko berriek hala eskaturik.

Azpimarratu nahi dugu, beraz, hiztunak hizkuntzaren erabilera berri bat egiten duenean sistema aldatzen ari den edo besterik gabe sistemak aldeztu aurretik bazuen aukera bat aktibatzen ari den ikustea ez dela inola ere arazo erraza: semantika- eta sintaxi-ezagutza sakona eskatzen dute honelako auziek. Hitztunek egindako erabilera berriak halako azterketa sakonik egin gabe oztopatuko bagenitu, hiztunen sortze-ahalmena bera oztopatuko genuke, eta beraz, hizkuntzaren garapena eta iraupena oztopatuko genituzke.

3.3. Jakintza berezitua eta testu berezituak

Testu berezituaren eginkizuna jakintza berezitua garatzea edota hedatzea da, eta eginkizun horiek eragin zuzena dute testu horietan

erabiltzen diren hizkuntza-baliabideetan. Jakintza berezitua (eta haren barruan jakintza zientifikoa) edukien egituratze sistematikoa-goa da gutxi gorabeherakoa den eta eguneroko esperientziaren bidez lortzen den jakintza orokorra baino. Jakintza berezituak ikasketa esplizitua eskatzen du, zientzialarien komunitatean adosturiko erreferentzia-eskema zehatz baten bidez egituratzen baita. Jakintza berezitua gureganatzen dugunean, prozesatzen ditugun nozioak ez dira guztiz berriak; aldeztatik garunean metatu dugun jakintzaren birformulazio sakonagoa edo azalekoagoa izaten dira. Izan ere, nozio berezituak adierazteko erabiltzen ditugun hiztegi-elementuak askotan nozio orokorrak adierazteko erabiltzen ditugun berberak dira, baina zehazkiago definiturik, mugaturik eta eskema batean kokaturik. Ondoko testuan ikus dezakegu zehazkiago zer esan nahi dugun:

(2) SOKEN PROPIETATE MEKANIKOAK

Propietate mekanikoen erabakitzen dute tentsio mekanikoen eraginpean dauden materialen erantzuna nolakoa den: *zurruna*, *malgua*, *erresistikorra*, *deformakorra*, *hauskorra*, etab. Sokek, ohiko erabilpenetan trakziopean lan egiten dutenez, trakziopeko propietate mekanikoen aztertuko ditugu atal honetan.

Munduari buruz dugun jakintza orokorra eta gure hizkuntzaren hizkera orokorra direla eta, denok dakigu gutxi gorabehera zer diren *sokak*, zer den *tentsioa*, zer den *erantzuna*; beste zenbait kontzeptu ere baditugu buruan, adibidez, zer den *zurrun*, *malgu*, *hauskor*. Edonola, testua irakurtzeaz batera konturatzen gara “materialen erantzuna” segidan *erantzun* hitzak hizkera orokorrean ez bezalako esangura hartzen duela: “materialen erantzuna” ezin izan daitekeela “nire lagunaren erantzuna” edo “galderaren erantzuna” segidan duen esangura bera. Bestetik, *malgu* eta *zurrun* ezaugarriak aurkakoak direla ere badakigu munduari buruz eta hizkera orokorrari buruz dugun eza-

gutzan oinarrituta, baina nekezago jakingo dugu bi ezaugarri horiek *hauskor* ezaugarriaren eskema berean daudela mekanikaren alorrean. Nozio hauek mekanikaren alor berean integratu behar ditugula ikasiko dugu honela: jakintza sistematikoagoa lortuko dugu. Areago, alor horretan, *zurrun*, *malgu* eta *hauskor* ezaugarriak ez ezik, *erresistikor* eta *deformakor* ezaugarri berriak ere sartu behar ditugula ikasiko dugu. Hortaz, lehen buruan genituen ezaugarriak zehaztasun handiagoaz mugatu beharko ditugu, eskeman sartu ditugun *erresistikor* eta *deformakor* nozioekin batera egokitzeko. Laburbilduz, munduari buruz genuen jakintza orokorra testuan islatzen den jakintza berezituarekin erkatuz, eskema berria (berezituagoa), sistematikoagoa eta zehatzagoa lortzen dugu errealitatearen gainean.

Jakintza berezitua sistematikoagoa da jakintza orokorra baino. Sistematikotasun hori dela eta, etiketa gehiago (hiztegi-elementu gehiago) behar ditugu. Etiketa horiek lortzeko hiru bide ditugu: batetik, etiketak mailega ditzakegu beste hizkuntza batetik. Bigarrenik, etiketa berriak sor ditzakegu hizkuntzaren eraketa-arauak erabiliz: sistematikotasuna hizkuntzan ere islatuko da eta, askotan, analogiaz sortuko ditugu etiketa berri horiek jadanik sisteman ditugun hiztegi-elementuak kalkatuz (*hauskor* \diamond *erresistikor*, *deformakor*). Hirugarrenik, ditugun etiketak berregokitu ditzakegu erabilera orokorretan baino esangura zehatzagoa emanaz (*zurrun*, *malgu*, *hauskor*): esangura zehatzagoa emateak askotan tasun semantikoaren hautapen finagoa egitea eskatzen digu. Horrela, hizkera orokorrean erdisinonimoak diren hiztegi-elementuak ondo nabarmendurik egon daitezke hizkera teknikoan. Horrela, *irakurgaitz* eta *irakurtezin* sinonimotzat hartzen ditugu hizkera orokorrean, baina *disolbakor*, *disolbagaitz*, *disolbaezin* sailkapen baten osagaiak dira Kimikaren alorrean ondo berezita daudenak.

Bestalde, testu berezituak trinkotasuna bilatzen dute. Baliabide trinkoak dira adituen komunitateak partekatzen duen jakintza

enkapsulatzeko modu bat, eta nozioak etiketa trinkoetan enkapsulatzeko ohikoa da nominalizazioa erabiltzea: termino gehienak izen kategoriakoak dira. Goiko testuan *Sokek trakziopean lan egiten dutenez* esalditik *takziopeko propietate mekanikoak* izen-sintagma konplexura heltzen gara. Azken honek termino izateko behar den trinkotasunaren baldintza betetzen du.

Laburbilduz, testu tekniko-zientifikoek ezaugarri bereizgarriak zehaztasuna, sistematikotasuna eta trinkotasuna direlarik, testu hauek aldatu egiten da zenbait hizkuntza-baliabideren emankortasuna eta erabilera-maiztasuna.

4. Hizkuntzalarien balioztatzeak testu tekniko-zientifikoei buruz

Testu tekniko-zientifikoek egokitasunari eta zuzentasunari buruzko epai batzuk kolokan jarri ditugu aurreko ataletan zientzialarien diskurtso-komunitateak egun bizi duen egoera soziolinguistikoa kontuan ez hartzeagatik, hizkera berezituaren berezko ezaugarriak ezikusia egiteagatik, eta hizkuntzaren erabilera berriek hizkuntza-sisteman bertan eragina izango dutela ez aurreikusteagatik, edota ez onartzeagatik. Atal honetan beste arrazoi bi gaineratuko ditugu aipaturiko balioztatzeak eztabaidagarriak direla agerian uzten saiatzeko. Hasteko, balioztatze horiek egiteko erabiltzen diren metodologiak (*corpusak* eta hiztunen intuizioa) erabileraren menpekoak dira, eta haien esanahia oso mugatua da erabilera berriei buruz ari garenean. Bigarrenik, testuen baliagarritasunaz eta asegarritasunaz epaiak egiteko egokiagoak dira testuak sortu dituen diskurtso-komunitatearen kideak hizkuntzalariak baino.

4.1. Hizkuntzalaritzaren metodologia eta hizkuntzaren erabilera berriak

Une honetan esan dezakegu euskararen hizkuntza-sistema gehiago edo gutxiago deskribatuta dugula gure gramatika eta hiztegiaren. Bai-

na, ezagutza hori baliatuz epaitu al ditzakegu testu tekniko-zientifikoak eta erabilera zuzenak eta okerrak zalantzarik gabe bereizi? Gure iritziz ez, eta gure arrazoiak azaltzen saiatuko gara. Hizkuntza-sistema deskribatzeko bi tresna nagusi erabiltzen ditugu hizkuntzalariok: a) hizkuntza-ekoizpenak, alegia, era desberdinetako testuez osaturiko *corpus*ak edota b) hitzunen hizkuntza-intuizioa —hizkuntzalariak berak hizkuntza bateko hitztuna izanda, bere buruari galdetzen dio, edota galdetegi egokien bidez era desberdinetako hitzunei galdetzen die—. Bi eratako datu horiek erabiliz deskribatzen ditugu hizkuntza-ren gramatika eta hiztegia.

Euskara bezala egoera soziolinguistiko ezegonkorrean dagoen hizkuntza batean arreta berezia jarri behar da, ordea, datu horiek interpretatzeko orduan. Izan ere, *corpus*etan agerian geratzen zaigu nola gauzatu den hizkuntza-sistema testu horiek sortu diren egoera pragmatikoetan. Hortaz, hizkuntza-sistemari buruz dugun informazioa handiagoa eta fidagarriagoa egiten da testu kopurua eta testu horien aniztasun pragmatikoa gora doazen neurrian. Egoera pragmatiko jakin batzuetan baino erabili ez den hizkuntzak ez ditu oraindik gauzatu sistemak dituen aukera guztiak: *corpusean* agertzen ez diren aukerak baliteke gauzatzea hizkuntza bestelako egoera pragmatikoetan erabiltzen denean. Hirugarren atalean azaldu dugun bezala, hizkera zientifikoak hizkuntza-ren gauzatze pragmatikoak baino ez dira, baina sistemari berari eragiten diote balio berriak aktibatuz eta maiztasunak aldatuz. Bestetik, lehenago ikusi dugunez, ez da inola ere erraza erabakitzen hitztuna sistematik kanpo ari den edo, besterik gabe, bere sortze-gaitasuna (barne-intuizioa) erabiliz, egoera pragmatiko berriak eskatzen dizkion balio berriak aktibatzen ari den, beti ere sistemaren barruan.

Hitzunen barne-intuizioari dagokionez, hiru faktore hartu behar dira kontuan: batetik, intuizio hori zuzenean lotuta dago hitzun bakoitzak izan duen hizkuntza-esperientziarekin; bigarrenik, hiz-

kuntza bateko alor jakin batean esperientziarik izan ez dugunean, beste hizkuntza batean alor horretan dugun esperientzia baliatzen dugu hiztunok hizkuntza-sistema testuinguru pragmatiko berrian nola gauzatu behar dugun erabakitzeko. Gainera, beste hizkuntza horretako esperientzia diskurtso-komunitate osoak partekatzen badu, komunitate osoak erabiliko du garatze-bidean dagoen hizkuntzaren hutsuneak konpentsatzeko. Hirugarrenik, hizkuntzalarien intuizioa ez da bestelako hiztunena baino egokiagoa hizkuntzaren azterketarako, eta areago, hizkuntzalarien intuizioak muga garbiak ditu bere diskurtso-komunitatetik kanpoko ekoizpenak epaitzeko: esparru horietan hizkuntza-esperientziarik ez duelarik, ez aztertzen ari den hizkuntzan ez beste hizkuntza batean ere, hizkuntza-intuizio orokorra baino ezin du erabili hizkuntzalariak.

4.2. Testu tekniko-zientifikoaren egokitasuna

Nork epaitu dezake testu tekniko-zientifikoaren egokitasuna? Gure iritziz, testuen egokitasunaz ari garenean, bi ezaugarri bereizi beharko genituzke, alegia, baliagarritasuna eta asegarritasuna. Baliagarritasuna ezaugarri funtzionala da: testua komunikazio-eginkizun baterako pentsatu bada, eta eginkizun hori betetzen badu, baliagarria dela esango dugu²¹. Asegarritasuna da egokitasunaren barruan bereiz dezakegun bigarren ezaugarria. Testu bat edo bestelako hizkuntza-unitate bat baliagarria izan daiteke komunikaziorako baina ez (erabat) asegarria. Asegarritasunean sartzen dira hizkuntzaren eraketa-

²¹ Normalizazio bidean dagoen euskara bezalako hizkuntza batean, maiz sortu dira baliagarriak ez diren testuak eta beraz, balio sinbolikoa baino ez dutenak. Baina, euskararen normalizazioan urratsak ematen ari garela agerian uzten du, gure iritziz, gero eta gutxiago onartzen direla gizartean eginkizun sinbolikoa baino ez duten testuak. Testu hauek hizkuntza-kontzientzia pizteko eta gizarte batean hizkuntza batek duen presentzia handitzeko behintzat balio dute.

arauen araberakoa izatea, ikuspegi semantikotik transmititu nahi duen ideiarako egokia izatea, testuak eskatzen duen estilorako baliagarria izatea, testuak eskatzen duen testuinguru pragmatikoan kontraesanik edo harridurarik ez sortzea, e.a.

Edozein hizkuntza-baliabidek asegarria izan behar du batez ere erabili behar duen diskurtso-komunitatearentzat, gure kasuan zientzialarientzako. Hizkuntzalariek, jakina, badute zeresanik gramatikaren araberako asegarritasunari dagokionez, baina muga gehiago izango dituzte alderdi kognitibo eta pragmatikoei dagokienez. Bestalde, zientzialarien diskurtso-komunitatearen barruan, “hiztun osoek” jarriko dute asegarritasunaren muga, alegia, hizkuntza-gaitasuna erabat garatuta duten hiztunek eta ez erdi-hiztunek. Baina, “hiztun osoak” delako etiketa ere, badaezpadakoa da euskararen egoera diglosiakoan: aurreko puntuetan ikusi dugun bezala, hiztun gehienok dugu esperientzia mugatua zenbait erabilera-esparrutan, eta are gehiago zientziaren esparruetan. Gainera, bigarren atalean esan bezala, testu tekniko-zientifikoak sortzen dituzten hiztunen artean badira euskara bigarren hizkuntza duten eta, aldi berean, oso hizkuntza-esperientzia mugatua izan duten hiztunak ere: hiztun hauek sortzen dituzten testuak epaitu behar dira beste edozein 2H-ren ikasketa-prozesuan dauden hiztunek sortzen dituzten testuak bezala, alegia, “erdi-hiztunek” sortutako testu modura. Pentsa dezagun zenbat testu tekniko-zientifiko idazten dituzten ingelesez hizkuntza hori bigarren hizkuntza duten hiztunek: testu horiek balio instrumentala baino ez dute eta halakoak aztertzen direnean (Ormrod, 2004; Oliver del Olmo, 2004) berehala antzematen dira ingelesa lehen hizkuntza duten hiztunek ez dituzten mugak hiztun horiengan. Hortaz, baliagarriak dira zientziaren garapena posible egiten baitute, baina ez asegarriak ingelesa ama-hizkuntza duten hiztunentzat.

Bestetik, testu zientifikoetan erabiltzen diren hizkuntza-unitate berezituak asegarritasunak mailak izan ditzake: alderdi kognitibo,

soziala eta linguistikoa elkartzen dituztelarik, hizkuntza-unitateak asegarriak izan daitezke alderdi kognitibotik eta soziopragmatikotik eta ez gramatikaren alderditik, eta alderantziz, erabat asegarriak izan daitezke gramatikaren ikuspegitik eta oso asegarritasun mugatua eduki ikuspegi kognitibo edota soziopragmatikotik. Hizkuntza normalizazio bidean dagoela agerian uzten digu hizkuntza-unitateak gero eta asegarriagoak izatea. Asegarritasunak bere isla izango du erabilera-maiztasunean: hiztunek asegarrien gertatzen zaizkien hizkuntza-unitateak erabiltzen dituztela pentsatu behar dugu.

5. Ondorioak: hizkuntzalarien ekarpena euskara tekniko-zientifikoaren normalizaziorako

Aurreko ataletako gogoetatik abiatuta eta lan honi amaiera emateko gutxieneko zenbait irizpide agertuko ditugu: irizpideok bilduko lukete, gure ustez, hizkuntzalariek hizkera berezituiei, eta zehazkiago zientziaren euskararen garapenari, egin diezaieketen ekarpena. Azken urteotan behin eta berriro eztabaidatu diren zenbait adibide erabiliko ditugu esan nahi duguna ulergarriago egiteko:

a) Hizkuntzalaritza aplikatuaren eginkizuna da gizarte bati hizkuntzarekin lotutako komunikazio-arazoak konpontzen laguntzea eta ez, zuzentasunaren izenean, are oztopo gehiago jartzea. Edozein baliabide baztertu aurretik hizkuntza-komunitatean sortaraz dezakeen desoreka aztertu behar da ezinbestez.

b) Erabilerak ziurtatzen du hizkuntza baten iraupena eta esparru berrietan erabiltzeak ziurtatzen du hizkuntzaren garapena. Hiztunek sortutako testu guztiek dute beren balioa: batzuek balio sinbolikoa baino ez dute izango, beste batzuk komunikaziorako baliagarriak izango dira, eta baliagarrien artean asegarritasun maila desberdinetakoak aurkituko ditugu. Erabilerak ziurtatzen du, gainera, diskurtso-komunitatearen trinkotzea, eta trinkotze horrekin lotuta dago testuak gero eta asegarriagoak izatea.

c) Testuen egokitasunean baliagarritasuna eta asegarritasuna bereizi ditugu, eta aldarrikatu dugu ezaugarri hauek epaitzeko hiztunik egokienak diskurtso-komunitateko kideak direla, eta horien artean “hiztun osoak”. Izan ere, hiztun hauek bi ezaugarri biltzen dituzte: hiztun modura duten gaitasun orokorra eta lan egiten duten jakintza-esparruaren baldintza pragmatiko berezien ezagutza.

d) Hizkera berezituak hizkuntza baten gauzatze pragmatikoak baino ez dira, sortzen dituzten testu motengatik eta esparru bakoitzeko terminologiagatik bereizten direnak. Edonola, hizkuntzaren sistemari eragiten diote erabilera hauek: lehenago aktibatu ez diren balioak aktibatzen dituzte, tasun semantikoen hautapen finagoa egiten dute, eta zenbait hizkuntza-baliabideren eta konbinazio-arauren erabilera-maiztasuna aldatzen dute.

e) Aurreko irizpideak eskatzen digu bestelako erabilera-esparru batzuei dagozkien *corpus*etatik ateratako datuak erabilera berrietara estrapolatzen direnean arreta berezia jartzea. Zuzena izan daiteke datu horiek erabiltzea hizkera berezituari hutsuneak konpontzen laguntzeko, baina ez hizkera hauetarako baliagarriak diren erabilerak oztopatzeko. Lehen kasuaren adibide modura emango dugu *igerian egon* esapidearen erabileraz Sarasolak (1997a) egiten duen deskripzioa: *flotatu* baino askoz ere asegariagoa da argi eta garbi, eta zenbait hutsune betetzen dizkigu hizkera zientifikoetan. Aitzitik, bigarren kasuaren adibide modura emango genuke Sarasolak berak *anitz* zenbatzailea bahûbrihi elkarteak sortzeko jartzen dituen eragozpenak: euskarak lehenagoko erabileretan *begibakar* modukoak bai baina *begianitz* modukorik ez izateak ez du esan nahi euskararen hizkuntza-sistemak halakorik sortzerik ez duenik. Euskara berezituaren sistematikotasunak eragin bide du lehenago aktibatu gabe zegoen aukera bat aktibatu izana (Zabala, 2003a).

f) Terminok, eta oro har hizkuntza-unitate berezituak, hiru alderdi uztartzen dituzte: alderdi linguistikoa, kognitiboa eta soziala.

Elementu baten asegarritasunaz erabakitzeke, hiru alderdi horiek hartu behar dira kontuan: elementu bat asegarria izan daiteke alderdi kognitibo eta sozialetik, alderdi linguistikotik erabat asegarria ez bada ere. Zenbait adibide ematearren, *birziklatul birziklapena* eta *liseritul liseriketa* aipatuko ditugu. Bi unitate hauek ezin era daitezke hurrenez hurren euskararen morfologia- eta fonologia-arauak erabiliz, baina erabat finkatuta egon dira gizartean terminoek behar duten nozio-denominazio lotura ezin hobeto gauzatuz, eta erabileraren aldetik, erabat ondo sustraituta egon dira. Euskaltzaindiak lehen bikoteari buruz ezer gutxi esan badu ere, Hiztegi Batuan *liseriketa* terminoaren ordeztu *digestio* erabili behar dela erabaki du alderdi fonologikoari bakarrik erreparatuz, eta areago, alderdi fonologikoari dagozkion estilo zaindurako erakunde berak emandako arauak ahaztuz. Izan ere, Euskaltzaindiak estilo zaindurako eskatzen digun ebakerak oso zaila egiten du *digerigarri* bezalako eratorri bat ahoskatzea. Erabaki honek, beraz, asegarritasunaren beste alderdiei eragin die²²: gure iritziz ase-

²² Erabaki hau hartu dutenek pentsatu al dute *digestio* hitza eskola edo hitzaldi bat emateko erabili beharko duenak Euskara Batuaren Ahoskera Zainduaren arauak bete beharko dituela?, eta unibertsitateko fisiologia irakaslea bada, *digerigarritasun-koefiziente*a bezalako terminoen antzekoak ahoskatu beharko dituela? Elhuyar hiztegi lebidunaren 1996ko eta 2000ko argitalpenak konparatzea baino ez dugu ikusteko ondorio zalantzarik ez direla ahoskera mailan geratzen, hiztegi-sorkuntzara ere hedatzen direla: 1996ko argitalpenean, *liserigailu*, *liserigaitz*, *liserigarri*, *liserigarritasun*, *liseriketa* eratorriak aurkitzen ditugu *liseri* aditzetik abiatuta. 2000ko argitalpenean berriz, *digeritu* aditzarekin lotutako sarrera bakarra *digestio* izena da. Español-Euskara atalera bagoaz, ikusiko dugu gaztelaniaren ‘digerible, digestible’ hitzen euskal ordainak *digeri daitekeena*, *digeritzen erraz dena* direla. Hor-taz, erabaki honen ondorioz, erabilera erabat egonkorra zuen hitza, erabat funtzionala eta hiztegi-sorkuntzaren ikuspegitik emankorra zena, baztertu da eta eskaintzen zaigun hitz berriak askoz ere arazo gehiago ekartzen dizkigu testuingurura egokitze-ko orduan: baliabide analitikoaren bidea baino ez digu uzten, alegia, itxi egiten digu termino modura egonkortzeko aukera gehiago dituzten baliabide trinkoak sortzeko bidea.

garritasun eta baliagarritasun maila txikiagoa duen elementu batez ordezkatu du oso asegarria zen hizkuntza-elementua.

g) Ikusmiran izan behar dugun helburua hizkuntza normalizatu-tako egoera da. Hizkuntza hauetan zientzialarien diskurtso-komunitatean ondo finkaturiko erreferentzia-terminoak daude, eta bestetik, testu mota desberdinekin eta testuaren barruko baldintza pragmatikoekin lotutako aldakortasun sistematikoa dago terminologian eta bestelako hizkuntza-baliabideen artean. Normalizatu gabeko hizkuntzetan aldiz, erreferentzia-terminoak falta zaizkigu eta aldakortasun asistematikoaren maila altua dago. Helburua ez da izan behar homogenotasuna: aldakortasun sistematikoa baliatu behar dugu testuinguruaren araberrako aldakortasun sistematikora hurbiltzen joateko (Zabala, Elordui eta Martínez, 2004).

h) Azken hogeita bost urteetan zientzialariek egin dituzten euskararen erabileretan nolabaiteko ereduak eta nolabaiteko aldakortasun-sistema finkatu direla ulertu behar dugu eta hala da gure azterketen emaitzen arabera (Zabala, Elordui eta Martínez, 2004). Funtsezkoa da finkatuta dagoen sistematikotasuna deskribatzea eta hedatzea, interbentzioa harmonizazioan oinarritu ahal izateko eta ez preskripzioan eta balizko gramatika-irizpideetan oinarritutako zuzenketa itsuan.

i) Zientzialarien eta hizkuntzalarien arteko elkarlana behar da: horietako talde bakoitzak du hizkuntza-unitate berezituak osatzen dituzten alderdietako baten edo batzuen asegarritasuna handitzeko gakoa: hizkuntzalariak beren ekarpena egin dezakete alderdi linguistikoa asegarriagoa egiteko, baina zientzialarien ekarpena behar da ezinbestean alderdi kognitiboa eta soziala asegarriagoak egiteko.

Bibliografia

Altonaga, Kepa (2002). "Saiakera zientifikoa idazteko abiapuntu bat" *Ekai*, 15: 127-149

- Beaugrande, Robert-Alain de (1987). "Special Purpose Language and Linguistic Theory" *ALSED-LSP Newsletter*, 10, 2
- Cabré, Maria Teresa (1999). "Elementos para una teoría de la terminología: hacia un paradigma alternativo". *La terminología. Representación y comunicación*. Institut Universitari de Lingüística Aplicada Universitat Pompeu Fabra. Barcelona: 69-92
- Cabré, Maria Teresa (2001). "Sumario de principios que configuran la nueva propuesta teórica" M. T. Cabré eta J. Feliu (arg.) *La terminología científico-técnica: reconocimiento, análisis y extracción de información formal y semántica*. Institut Universitari de Lingüística Aplicada. U. Pompeu Fabra. Barcelona: 19-25
- Ciapuscio, Guiomar (2003). *Textos especializados y terminología*. Barcelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada. U. Pompeu Fabra. Barcelona
- Contreras, Joan Miquel eta Suñer, Avel·lina. (2004). "Los procesos de lexicalización" E. Pérez Gaztelu, I. Zabala eta Ll. Gràcia (arg.) *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*: Deustuko Unibertsitatea. Donostia: 47-107
- Dorian, Nancy (1981). *Language Death: The Life Cycle of a Scottish Gaelic Dialect*. University of Pennsylvania Press. Philadelphia
- Dressler, Wolfgang Ulrich (1981). "Language shift and language death: a protean challenge for the linguist". *Folia Linguistica*, XV/1-2: 5-27
- Elordui, Agurtzane (1995) *Hizkuntza Heriotza eta Aldaketa Morfolo- gikoa: Hegomendebaldeko Bizkaieraren Kasua*. Doktoretza-tesia. EHU.
- Elordui, Agurtzane (2001). "Processes of Language Shift and Loss: Evidence from Basque". Ammerlaan, M. Hulsen, H. Strating, K. Yagmur (arg.) *Sociolinguistic and psycholinguistic perspective on*

maintenance and loss of minority languages. Waxman. Alemania: 77-92

- Elordui, Agurtzane (2003). "Variation in the Grammar of Endangered Languages: The Case of Two Basque Dialects". *SKY Journal of Linguistics* 16: 7-26
- Elordui, Agurtzane eta Zabala, Igone (2004). "Euskararen normalizazioaren erronka berriak: komunikabideetako profesionalak eta hizkuntzalariek elkarlanean". *Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua*. Bilbo
- Elosegi, Arturo (2002). "Euskara zientifikoa Natur Zientzietan: sena eta sonaren artean orekan" *Ekaiia*, 16: 135-146
- Elosegi, Antton (2002). *Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologia*. EHUko doktoretza-tesia. EHUko Argitalpen Zerbitzua
- Eснаоla, Imanol (2002). "Gaztetxoak eta euskara. Euskara etxeko ala auzoko?", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 42. Andoain: 73-91
- Freixa, Judit (2003). *La variació terminològica. Anàlisi de la variació denominativa en textos de diferent grau d'especialització de l'àrea de medi ambient*. Doktoretza-tesia. Universitat Pompeu Fabra. Barcelona
- Gal, Susan (1979). *Language shift: Social determinants of linguistic change in bilingual Australia*. Academic Press. New York
- Garzia, Joserra (2004). "Euskara komunikatiboa" *Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua*. Bilbo
- Gutiérrez, Bertha M. (1998). *La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico*. Editorial Península. Barcelona
- King, Ruth (1989). "On the social meaning of linguistic variability in language death situations: Variation in Newfoundland French",

- N. Dorian (arg.). *Investigating obsolescence. Studies in language contraction and death. Studies in the Social and Cultural Foundations of Language*, 7. Cambridge University Press. Cambridge: 139-148
- Kocourek, Rostoslav (1982) *La langue française de la technique et de la science*. Brandstetter. Wiesbaden
- Larringan, Luis Mari eta Idiazabal, Itziar (2004). “Euskararen kalitate aztertzeko teoria eta metodologia” <http://www.erabili.com> (2004-10-04)
- Mitxelena, Koldo (1968) “Ortografia” *Arantzazuko Biltzarreko Aktak. Euskera*, XIII: 203- 219
- Oliver del Olmo, Sonia (2004). “Hedging in biomedical research articles: learning how to write science in English L2” *GLAT-2004 kongresuko aktak*. Barcelona: 23-36
- Ormrod, Janet (2004). “Creation and subsequent usage of terms for discourse purposes in the scientific research article” *GLAT-2004 kongresuko aktak*. Barcelona: 51-60
- Picht, Heribert eta Draaskau, Jennifer (1985). *Terminology: an Introduction*. The University of Surrey, Department of International Studies. Guildford
- Sager, Juan Carlos; Dungworth, David eta Mac Donald, Peter F. (1980) *English Special Languages: Principles and Practice in Science and Technology*. Oscar Brandstetter. Wiesbaden
- Sarasola, Ibon (1997a). *Euskara batuaren ajeak*. Alberdania. Irun.
- Sarasola, Ibon (1997b). “Euskal hiztegi-gintzaren eta terminologiaren inguruan” *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. UZEI-IVAP. Donostia: 69-86
- Varantola, Krista (1986). “Special Language and General Language: Linguistic and didactic aspects” *ALSED-LSP Newsletter*, 9, 2(23). Copenhagen School of Economics

Wichter, Sigurd (1994). *Experten-und Laienwortschätze. Umriss einer Lexikologie der Vertikalität*. Tübingen. Niemeyer.

www.euskadi.net

Zabala, Igone (2003a). “Hitz elkartuak eta terminologia: zelulanitz bezalako adjektiboen egokitasuna aztertzeko bi ikuspegi” Xabier Alberdi eta Iñaki Ugarteburu (arg.): *Espezialitate hizkerak eta terminologia*. Euskara Institutua. EHU: 223-236

Zabala, Igone (2003b). “Causation and semantic control. Diagnosis of incorrect uses in minorized languages” Bernard Oyharçabal (arg.) *Inquiries into the lexicon-syntax relation in Basque. ASJUren gehigarriak* (XLVI): 255-283

Zabala, Igone; Elordui, Agurtzane eta Martínez, Mertxe (2004) “La variación terminológica en contextos sociolingüísticos minorizados: el caso de la lengua vasca” *RITERM kongresua*. Barcelona (argitara bidean).

Zuazo, Koldo (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Alberdania. Irun.

